

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Euskara ikasteko laguntzen deialdia eta oinarriak. 2021-2022 ikasturtea

Alkatearen 2020ko irailaren 20ko 220920A Dekretuaren bidez, euskara ikasteko laguntzen deialdia eta oinarriak onetsi ziren 2021-2022 ikasturterako, euskara ikas dadin sustatzeko, eta testua osorik argitaratzen da, guztiek jakin dezaten.

Behin betiko ebazpen honek administrazio bidea agortzen du.

BALIABIDEAK

Interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hala ere, alde aurretik, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diote alkate honi, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Aurrekoek gainera, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango dute.

Honekin batera doa oinarrien testu osoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik argitara dadin, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak betetzen direla bermatzeko.

Interesdunek 2022ko urriaren 14tik azaroaren 14ra arteko epea izango dute dirulaguntza eskaerak aurkezteko, beharrezko agiri guztiekin batera.

EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRIAK. 2021-2022 IKASTURTEA

1. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da euskara ikasteak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko dirulaguntzak emateko arauak ezartzea.

Deialdi honen bidez euskara ikastaro hauek lagunduko dira diruz:

– Euskaltegi homologatuetako euskara ikastaroak, 2021eko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era (biak barne) egindakoak, araubide arruntean zein barnetegian.

– Euskaltegi homologatuetako udako euskara ikastaro trinkoak, ekainean, uztailean, abuztuan edo irailean egindakoak, bai ikastaro arruntak, bai barnetegietan egindakoak.

Salbuespenak.

Salbuetsita daude mota guztietako ikastaroetako joan-etorrien gastuak, mantenu gastuak eta ostatu gastuak.

2. Onuradunak

Deialdi honen onuradun izan daitezke Legution erroldatuta dauden pertsona fisikoak, ikastaroa eman den aldian erroldatuta egon direnak, eta, horrez gainera, deialdi honen bosgarren oinarrian zerrendatutako betekizunak betetzen dituztenak.

Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan jasotako egoeraren batean daudenak.

3. Aurrekontu kreditua

Legutioko Udalaren aurrekontuan euskara ikasteko dirulaguntzetarako aurrekontu aplikazioa jasotzen da. Programa honen bidez deitutako laguntzen zenbatekoa 2.000 euro da, eta 335.481.010 "Euskara sustatzea" aurrekontu partidaren kontura finantzatuko da.

4. Esleipen araubidea

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da, eta, horretarako, eskabideak alde-ratu egingo dira, betiere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean adierazitako printzipio hauek bermatuta: publizitatea, lehia, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eraginkortasuna eta efizientzia.

Urteko ikastaro edo maila bakarrerako emango da dirulaguntza, salbuespenak salbuespen (lan kontuak, gaixotasunak, ikastaroa berriz egin beharra gainditu ez delako, eta abar); halakoak dagokion batzordeak aztertuko ditu.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa izango da udal honek erakunde homologatuarekiko hitzarmenaren bidez eskainiko dituen eta udalerrian bertan eta denbora tarte berean emango diren ikastaroen zenbatekoa, kontuan hartu gabe zenbatekoaren zein gastu egiaztatzen den.

5. Dirulaguntzak emateko betekizunak

Deialdi honetako laguntzen onuradun izateko betekizun hauek bete behar dira nahitaez:

- Legutioko udalerrian errolatuta egotea ikastaroa ematen den aldian.
- Euskara ikastaroa egitea deialdi honen lehenengo oinarrian adierazitako aldietan eta euskaltegi homologatu batean.
- Euskara eskolen ehuneko 80ra edo gehiagora joan izana egiaztatzea. Hori egiaztatzeko, kasuan kasuko euskaltegiko zuzendaritzak emandako ziurtagiria baino ez da onartuko.

6. Eskaerak aurkezteko modua, epea eta tokia

Dirulaguntzen eskaerak eredu ofizialaren arabera egin beharko dira (I. eranskina) eta Legutioko Udalaren Erregistroan aurkeztu ahal izango dira, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide erabilita ere.

Horren harira, oinarri hauekin batera doaz aurkeztu behar diren inprimaki ereduak, eta jendeak eskuragarri izango ditu udal bulegoetan eta udalaren webgunean (www.legutio.eus) ere. Ereduekin batera, deialdi honetako 7. oinarrian aipatutako agiriak ere eraman behar dira.

Eskaerak eta agiri osagarriak 2020ko urriaren 14tik azaroaren 14ra bitartean aurkeztu behar dira.

Eskaera orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo agiri horiek osatu gabe badaude, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko. Epe horren ondoren akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da.

7. Aurkeztu beharreko agiriak

- Euskara ikasteko laguntza jasotzeko eskaera orria (I. eranskina).
- Egindako ordainketaren frogagiria.
- Euskaltegiko zuzendaritzaren ziurtagiria, datu hauek jasotzen dituenak: ikaslearen datuak, egindako maila, asistentzia eta ikastaroaren hasiera eta amaiera egunak.
- Ikastaroa barnetegiren batean eginez gero, euskaltegiaren ziurtagiria, zeinetan xehatu egingo baitira gastuak: irakaskuntzakoak alde batetik, eta mantenukoak eta ostatukoak bestetik.
- Zinpeko adierazpena, jasotzen duena eskuratutako dirulaguntzarekin eta eska daitezkeen beste batzuekin ez dagoela inolako gainfinantzaketarik (II. eranskina).

8. Eskaerak aztertzea, ebaztea eta organo eskuduna

Udal honetako euskara atalak aztertuko ditu eskaerak, eta txosten tekniko bat idatziko du, gero ebazpen proposamenaren oinarria izango dena.

Alkateak emango du behin betiko ebazpena, dekretu bidez, eta erabaki horren berri emango dio Udalbatzari egingo den hurrengo bilkuran.

Ebazpenean onuradunen zerrenda eta jaso beharreko zenbatekoak jasoko dira. Dirulaguntza ukatzen bada, ukatze horren arrazoiak emango dira.

9. Ebazteko epea

Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gehieneko epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, interesa dutenek ulertu beharko dute dirulaguntza emateko eskaera administrazio isiltasunaren bidez ezetsi dela.

Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du eta haren aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko diote alkateari hilabeteko epean, ebazpen hori ematen denetik aurrera; bestela, zuzenean aurkeztu ahalko dute administrazioarekiko auzi errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean. Horrek guztiak ez du eragozten interesdunak egoki deritzon beste edozein errekurtso ere aurkeztea.

10. Arau hausteak eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko arau hauste eta zehapenei buruzko gaietan, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluaren eta haren araudia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuaren IV. tituluaren jasotako aginduak.

11. Araudi aplikagarria

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta Legutioko Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2005eko martxoaren 21eko ALHAOn argitaratua.

I. ERANSKINA

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA
LEGUTIOKO ALKATE-UDALBURUA

ESKATZAILEAREN DATUAK:

Izen-abizenak:

NANa:

Helbidea:

Herria:

Telefonoa:

BANKUKO DATUAK:

Banketxea/kutxa:

Sukurtsala:

Kontu zenbakia:

Titularra:

ADIERAZTEN DU

Legutioko Udalak euskara ikasteko ematen dituen laguntzen berri izan duenez, ikastaro hau egin du:

Euskaltegia:

Gainditutako maila/ikastaroa:

Matrikularako ordaindu den zenbatekoa:

ESKATZEN DU

Euskara ikasteko laguntza.

Legutio, 2022ko (a) ren -(a)

II. ERANSKINA

ZINPEKO ADIERAZPENA

Nik, jaun/andreak (NAN zenbakia:; helbidea:),

Zinpean adierazten dut, ezen, kontuan izanda zenbateko dirulaguntza eskatu diodan Legutioko Udalari eta zenbat gehiago jaso dezakedan beste edozein erakunde publiko edo pribatutatik, ez dudala jasoko inolako gainfinantzaketarik.

Eta hala jasota geratu dadin Legutioko Udalean, zinpeko adierazpen hau egiten dut.

Legutio, 2022ko (a) ren -(a)

(Sinadura)

Legutio, 2022ko irailaren 20a

Alkatea

JUAN CRUZ JAINAGA INCIARTE